

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ETXABARRI URTUPIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda jendaurrean jartzea, eta 2024ko bigarren seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea

Egin delarik Etxabarri Urtupiñako etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, 2024ko bigarren seihilekoari dagokiona, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesa dutenek Etxabarri Urtupiñako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honen bidez, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritz Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2024ko otsailaren 11n hasi eta 2025eko martxoaren 11n bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2025eko martxoaren 11n kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideraturik ez daukatenei Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo Vitalneten. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Etxabarri Urtupiñako Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaru eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Etxabarri Urtupiña, 2024ko abenduaren 30a

Lehendakaria

OSCAR PEREZ DE SAN ROMÁN URTEAGA